

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

BERRI PAPERERA



Amaia Zentroa
Benito Perez Galdos
01002 Gasteiz

www.bertsozale.eus/araba

araba@bertsozale.eus
945 01 05 05

Aurten ere Gasteizko jaietan ENTXOSNATU Bertsozale Elkartearekin!



Oihane Perea

Bertsolaritza aurten ere presente egongo da unibertsitatean, gauez ikastaro trinkoa egin nahi duenarentzat. Eltzeak sutan jarriko ditugu eta plater osasungarriak eskainiko dizkiogu abuztuaren 4tik 9ra bitartean masterra egitera hurbilduko diren Gasteiztar eta bisitariarentzat.

Eskenatoki nagusitik gertu, eta karparen ondoan, arrautzaren gorringoa izango da aurten Bertsozale Elkarteko txosna. Arrakasta ziurtatuta dago!

Aurtengo jaietan beraz, arratsaldeko 20,00etatik aurrera eta gorputzak aguantatzen duen arte, trenbidea pasa eta herri mugimenduaren

paradisu terrenalean galtzera gonbidatzen zaituztegu.

Baina egarriz edo gosez datozen bertsozaleez aparte, eskuak behar ditugu, barra ertzean eta lapiko artean egoteko prest dauden bertsozale umoretsu eta nekaezinak. Jakin badakigu asko oporretara joango zaretela edo bestelako egitekoak dituzuela, baina hiriburutik gertu zaudetenok ez ahaztu gure txosna maiteaz eta hartu txanda bat lagun artean lan eginez ederto pasatzeko.

Txandak hartzeko idatzi (araba.administrazioa@bertsozale.eus) edo deitu elkartera (945010505). Beso zabalik hartuko zaituztegu. Eskerrik asko!

KOPLA

Zerbeza hotza, jana bikaina...
Txosnan inor ez da kexu,
ta aspertuta baldin bazaude
turnoa egin dezakezu!



Argitalpenaren
laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala Kanpezun

Bertsolari gazteak, mendian gora!



Jon Ruiz Pinedo

Ekainak 8 ez zen egun arrunta izan, Arabako Eskolarteko finala eta Bertso Eskolen topaketa ospatu zirelako Kanpezun.

Bertso-festa goizen hasi zen, finalarekin hasi aurretik bertso-sorta

batzuk entzuteko aukera eduki genuen. Oholtzara lehenak igotzen Mendialdeko bertso eskolakoak izan ziren, furra furra doinuan Mendialdearen apologia egin zuten.

Bigarren, Aramaioko bertso eskolakoak igo ziren, 2015eko Arabako Bertso Txapelketako buruzburuzkoaren parodia ederra egin zuten.

60 bat entzulez barrez zeuden bitartean, eskolartekoko finalistak oholtzara igo ziren, Aramaiotik Peru Abarrategi eta Unai Etxenautia, Gasteiztik Unai Argote eta Peru Amorrortu eta Lautadatik Markel Yoyer eta Irati Ruiz de Pinedo. Oso ondo aritu ziren gai jartzaileak jarritako gaietan.

Bertsolari bakoitzak bere sari berezia jaso eta agurra kantatu

ostean, horrela esan zuen gai-jartzaileak: “aurtengo Arabako Eskolartekoko irabazlea... Peru Abarrategi!”.

Baina ez zioten txapela jantzi, ez ez zuelako merezi, aurtengo txapelketan ez delako txapelik egon. Txapelaren orde, egurrezko mikrofono bat eman zioten, baina soilik urte baterako edukiko du, hurrengo urteko irabazleari eman beharko diolako. Peru Amorrortu geratu zen bigarren.

Saio ostean bazkaltzera joan ginen, han bat egin genuen Kanpezuko ikastolako jaiarekin. Arratsaldean bertso-showak, malabarista eta dantza plazan egon zen.

Baina eskolartekoa ez da hemen amaitzen, Unai eta Peruk Orion ospatuko Euskal Herriko eskolarteko finalean kantatu beharko dutelako ekainaren 27an, beraz joan zaitezte gure bertsolariak animatzera!

Txapelduna... Manex Agirre! Eta orain... Denok afaltzera!

Oier Suarez



Menua lehendik erabakita genuen, Txapelduna nor izango zen ez bezala, edo bai? Ez dakit. Bertsolari ero pare baten proposamenetik abiatuta, Zuzendaritzak onartua eta “ohiko bideetatik” sarrerak erosita han elkartu ginen, La Bilbaina jatetxean. Paperean irakurrita menuak itxura ponpoxoa zuen... basa-marrubi entsalada, itsasoko fruituen rissottoa, karrillera iberikoa Oportozko glasseatuarekin, gazta-tarta basa-fruituekin, txupittoa... to! Zenbat geratu zineten txupittoa? Eta zenbatek egin zenuten alde lehenago? Batzuentzat txupittoa izan zen ginda (edo txapela), ardo botila guzti horiek edan ondoren, limoncello-zko txupittoa. Horrela bukatu zuten afaria, koilara sudur puntan zutela, horrela hasi zuten gaua...

2016ko KUADRILLA ARTEKOA

Oihane Perea



-KuadrillartekoA badatooooor! Prestatuuuu
-Ein????
-Nondik? Nondik? Ez da ikusten!!
-KuadrillartekoA badatooooor! Prestatuuuu
-Nondik?
-Artzai gezurtiaaaaa

2016ko Kuadrilla artekoa ez da zigoto bat oraindik! Zain dago, ea espermatozoide ausarten bat hurbiltzen den. Espermatozoidearen faltan, Kuadrilla artekoak hermafrodita bihurtzeko gaitasuna ere badauka. Ja! Gauza zailagoak ere egin ditu. Jaioko da, ziur baietz. 2016ko urtarrilean jaioko da.

Aiiii, eta nolakoa izango da? Handia edo txikia izango da?... Zalapartatsua edo apala?...

Ja! Ikusi ein behar! Baina gurasoak ikusita punky samar, ziur.

Agur 2014-2015 ikasturteari

Asier Lafuente

Ikasturtea abuztuan hasi genuen; udazkena baino lehen, uda bukaeran. Aurten lehendabiziko aldiz Arabako Bertsozale Elkarteak txosna ipini zuen Gasteizko jaietako txosna gunean. Zenbat lan! Zenbat laguntza! Eskerrik asko!

Udazkena ezin potenteago; Bertxorakeriketa eguna Gasteizen, Gasteizko Gizarte Etxeetako liburutegietan bertso-egitaraua osatu genuen, 11 bertso-eskolak martxan ipini ziren, 2000 umek bertsoaritzat jasotzen ikastetxetan martxan, Arabako 14 herrietan "Bertsolaritza, zer da hori?" hitzaldia, bertso-eskoletako irakasleen batzordea eratu zen, Bertxoko Sariketa institutuetan Bira bihurtuta, eta Bertxoko irratsaioa Hala Bedin berandu baina tinko, bertso-saioak Arabako herri txikietan Araba Bertsozale egitasmoarekin, institutuko

gazteekin Bertsoa bizi gazte egitasmoa martxan. Txapelketarako 5 aurrekanporaketa ere jokatu ziren. Radio de Vitoriarekin bertso-saio bat Oihanederren, Euskararen Etxea estreinatu genuen.

Neguan Lautadako umeekin barnetegia Altsasun, Batzar Orokorra Langraiz Okan, Zuzendaritza berri du. Lau saio bertso-KORRIKA. Txapelketak gure arreta guztia bereganatu zuen; Bi buelta, bertso-gehiago, Añan lehendabiziko aldiz. EHko Bertsozale Elkarteak antolatutako Gai-jartzaile Eskola ere Gasteizera iritsi zen.

Udaberrian bi bertso-barnetegi batera ia 100 umeekin. Txapelketako balorazio bileran ondorio potolo batzuk atera genituen, Eskolartekoan 3 saio eta Kanpezun azken eguna (txapelaren orde sari-lekukoa). Ikastetxeen arteko bertso-topaketak, 2000 umei banatu dizkiegu Bil-

bertsoak eta eskualdeetako drillartekoa marrazten eta bi urtekariak.

Udan: jaietako bertso-saioak, ABek berriro txosna ipiniko du Gasteizko jaietako Txosnagunean (leku ona tokatu zaigu), 2016ko Kua-

drillartekoa marrazten eta bi udaleku.

Ikasturtean zehar Izerdia gustura bota, orain beroaren zain.



AGENDA!

Ekainak 13 LAUDIO	PLAZA LIBREA	19:00, Herriko enparantza Izar Mendiguren, Oihane Perea Antolatzaileak: Laudioko Galiziar Zentroa
Ekaina 14 GASTEIZ	JAIALDIA	Araba Euskaraz, 12:30, Mineralean Orlando Arreitunandia, Unai Bengoetxea, Iker Olabarrieta, Asier Otamendi Gai-jartzailea: Aranbtxa Sobrino Antolatzaileak: Araba Euskaraz
Ekainak 14 ZALDUONDO	BERTSO ERRONDA	Jaiak. 15:00, Plazan Izar Mendiguren, Jagoba Apaolaza Antolatzailea: Jai Batzordea
Ekainak 27 LANDA	BERTSO BAZKARIA	14:30, Landa auzoa Paula Amilburu, Maria Fuentes, Xabi Igoa, Egoitz Iradier Antolatzailea: Arratzua-Ubarrundiako Gazte Asanblada
Abuztuak 5 GASTEIZ	JAIALDIA	13:30, Aihotz Plaza Maialen Lujanbio, Manex Agirre Gai-jartzailea: Aintzane Irazusta Antolatzaileak: ABE, Gasteizko Udala
Abuztuak 6 GASTEIZ	JAIALDIA	13:30, Aihotz Plaza Irati Anda, Sustrai Colina, Asier Rubio, Jone Uria Albizuri Gai-jartzailea: Unai Gomez Antolatzaileak: ABE, Gasteizko Udala
Abuztuak 7 GASTEIZ	JAIALDIA	13:30, Aihotz Plaza Oier Arbina, Orlando Arreitunandia, Maddalen Arzallus, Fredi Paia Gai-jartzailea: Olatz Santocildes Antolatzaileak: ABE, Gasteizko Udala
Abuztuak 8 GASTEIZ	JAIALDIA	13:30, Aihotz Plaza Peru Abarrategi, Igor Elortza, Xabi Igoa, Iñigo Mantzizidor ^{Xabi Igoa} "Mantxi" Gai-jartzaileak: Nieves Del Alamo Antolatzaileak: ABE, Gasteizko Udala
Abuztuak 9 GASTEIZ	JAIALDIA	13:30, Aihotz Plaza Oihana Bartra, Ruben Sanchez, Julio Soto, Felipe Zelaieta Gai-jartzaileak: Maialen Kortabarria Antolatzaileak: ABE, Gasteizko Udala
Abuztuak 13 AMURRIO		Jaiak, 20:30, Txosna gunea Oihana Bartra, Andoni Egaña, Izar Mendiguren, Asier Rubio Antolatzaileak: Aiaraldeko Bertso-Eskola

ZERNAHI

KLIK!



Xabi Igoa

Aurtengo txapelketan, argazkilaria ofiziala izateaz gain, "Kaixo!" eta "Zer diozu?" euskal prentsa arrosako argazkilariren bat edo beste ere izan dugu gure artean.

Paparazzi-ek baina ez zituzten bertsolarien une estuenak eta publikoaren saltoak objektiboa iltzatu nahi, afal osteko "desmarea" irudikatzea zuten helburu.

Ahaleginak ugari egin zituzten lehen plano dotore batzuk lortu nahian, baina goiko argazkian ageri den bezala, bertsolariek ez zuten argazkirik nahi. Inor ez zen ausartzen kamara aurrean irribarre egitera. Imajinatu, "rocksterra" ere lotsatu egin zela...

Prentsa arrosa eksklusiba gabe geratu aurretik baina, antolakuntza (beste behin) profesionaltasun osoz, lotsak aldean utzi eta boluntario agertu zen, aldizkaritako portadetarako.

GORA ANTOLAKUNTZA!

